**DEIALDIA:**

**ZUMAIAKO UDALEAN HUTSIK GERATU DEN IDAZKARI LANPOSTUA (BIGARREN MAILAKOA), BITARTEKO FUNTZIONARIO BATEK BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA.**

**MEREZIMENDUEN BEHIN BETIKO PUNTUAZIOAK ETA HAUTAKETA PROZESUAREN BEHIN BETIKO PUNTUAZIO TOTALAK**

**1.-** Merezimenduen behin behineko puntuazioen aurrean egon den erreklamazioari erantzun ondoren, merezimenduen behin betiko puntuazioak argitaratzen dira eta horiekin batera hautaketa prozesuaren behin betiko puntuazioak ere (I. Eranskina).

**2.-** Horiek kontuan izanik, ***9460** NANa duen hautagaiak, puntuazio total handiena lortu duenak, hautaketa prozesua arautzen duten oinarrien ***hamargarren*** oinarrian jasotzen den dokumentazioa Zumaiako Udalean aurkezteko, 5 laneguneko epea irekitzen da, iragarkia iragarki taulan jarri, web orrian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, **azaroaren 11 arte (hau barne).**

Hala jartzen da guztientzat agerian Zumaiako Udaleko iragarki taulan eta www.zumaia.eus webgunean ohartarazten da, erabaki hau, izapidetzako egintza kualifikatua dela eta ondorioz, horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezaketela interesatuek, ondoren azaltzen den eran:

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia gorako errekurtsoa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121 eta 122 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz:

-Epea: Hilabete bat, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.
-Nori zuzendua: Alkateari

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:
- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso

eta biharamunetik kontatzen hasita. Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Sin. Izaskun Korta Arcelus
epaimahai kalifikatzailearen idazkaria

KORTA ARCELUS IZASKUN
03/11/2022


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# I ERANSKINA

## 4. HE EGIAZTATU DUTEN HAUTAGAIEN MEREZIMENDUEN BEHIN BETIKO BALORAZIOA ETA HAUTAKETA PROZESUKO BEHIN BETIKO PUNTUAZIO TOTALAK

| NAN | Lan-esperientzia | Prestakuntza | Merezimenduen behin betiko puntuazio totalak | Oposizio aldiko behin betiko puntuazio totalak | Hautaketa prozesuko behin betiko puntuazio totalak |
|---|---|---|---|---|---|
| ***9460** | 14,50 | 5 | 19,50 | 58,02 | 77,52 |
| ***7783** | 20 | 2,7 | 22,70 | 54,31 | 77,01 |
| ***4010** | 20 | 3 | 23 | 53,72 | 76,72 |
| ***8319** | 13,25 | 3,7 | 16,95 | 54,98 | 71,93 |
| ***3776** | 0 | 0 | 0 | 43,12 | 43,12 |

## 3. HE EGIAZTATU DUTEN HAUTAGAIEN MEREZIMENDUEN BEHIN BETIKO BALORAZIOA ETA BEHIN BETIKO PUNTUAZIO TOTALAK

| NAN | Lan-esperientzia | Prestakuntza | Merezimenduen behin betiko puntuazio totalak | Oposizio aldiko behin betiko puntuazio totalak | Hautaketa prozesuko behin betiko puntuazio totalak |
|---|---|---|---|---|---|
| ***7964** | 20 | 0,7 | 20,70 | 47,50 | 68,20 |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus